

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo kirol kontseilu sektorialaren araudiari

Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo Udaltzaren 2025eko otsailaren 27ko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onspena eman zitzaion Aguraingo kirol kontseilu sektorialaren araudiari, eta haren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Agurain, 2025eko maiatzaren 6a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR

Aguraingo kirol kontseilu sektorialaren funtzionamendurako bame araudia

Izena eta xedea

1. artikulua

Kirolaren kontseilu sektoriala partaidetza-organo sektoriala da, eta gai horretan eskumena duten udaleko organoei kontsultak erantzun eta aholkuak emateko balio du. Hala, txostenak egin ahal izango ditu, hala badagokio, eta proposamenak eta iradokizunak egingo ditu bere eskumeneko sektore-eremuan.

2. artikulua

Kirol kontseiluak herritarren parte-hartzea sustatuko du, eta, bereziki, herritarren elkarte-mugimenduarena, kirolaren esparruan. Horrela, herritarrek erantzukizun handiagoa izango dute udalerriko gai publikoetan.

Funtzioak

3. artikulua

Hauek dira kirolaren kontseilu sektorialaren eginkizunak:

- Aguraingo kirol-bizitzaren norabidea zehaztea, eta, horretarako, estrategia egokiak lantzea.
- Aguraingo elkarten arteko koordinazioa bermatzea, horretarako, tresna nagusi gisa, udalerrian kirol-agenda bakar eta eraginkor bat sortuz.
- Elkarteei buruzko informazioa partekatzea eta sozializatzea, herritarrek beren jarduera eta eskaintzei buruzko informazioa izan dezaten.
- Kirol-ekintzen jakinarazpena egitea.
- Kirol-dinamika berriak sor daitezen sustatzea.
- Udalari eta elkarteei aholkularitza eskaintzea.

7. Kirol-espazioak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.

8. Kirol programa eta jardueretan proposamenak egitea eta udalarekin elkarlanean aritzea horiek abian jartzeko.

9. Udalak aurkezten dituen eta kirolaren kontseilu sektorialak aintzat hartzen eta eskatzen dituen kirol-gaiak eztabaidatu eta baloratzea, batez ere kirolaren arloko urteko programen informazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

10. Aguraingo Udaleko kirol departamentuaren aurrekontu-proiektua egiteko prozesuan parte hartzea eta aurrekontuaren gauzatzeari buruzko aldizkako informazioa jasotzea.

Osaera

4. artikulua

Kirolaren kontseilu sektoriala honako hauek osatuko dute:

– Lehendakaria: Kirol zinegotzia edo hark eskuordetutako pertsona.

– Korporazioa osatzen duten talde politiko bakoitzeko ordezkari bana.

– Aguraingo Udaleko elkarten erregistroan inskribatutako elkarte bakoitzeko ordezkari bat, sektorearekin zerikusia dutenak eta gai horretan interesa dutenak, eta kontseiluan parte hartzeko eskatzen dutenak.

Elkarteek izendatuko eta idatziz jakinaraziko dizkiote kontseiluko Idazkaritzari ordezkari bat hori izango duen bozeramailearen eta ordezkaren izenak.

Kirol kontseiluaren bilkuretara nahi adina pertsona joan ahal izango dira, hitz egiteko eskubidearekin. Hala ere, bozeramaileak edo, hala badagokio, ordezkoak bakarrik izango du botoa emateko eskubidea.

– Udalaren kirol-instalazioetako erabiltzaileen eta/edo harpidedunen ordezkari bat.

Interesdunek kontseiluko idazkaritzan aurkeztu beharko dute kontseiluko kide izateko interesa, eta inskribatutako guztien artean, bozeramaile bat izendatu beharko dute, hitzaz gain botoa ere izango duena.

– Kirol Zerbitzua gauzatzeko kontratatutako enpresako langileen ordezkari bat.

Interesdunek kontseiluko idazkaritzan aurkeztu beharko dute kontseiluko kide izateko interesa, eta inskribatutako guztien artean, bozeramaile bat izendatu beharko dute, hitzaz gain botoa ere izango duena.

– Era berean, kontseiluko kide izan daitezke, banaka, kontseiluaren sektore espezifikoaren barruan balio aitortua duten adituak eta pertsona ospetsuak, kontseiluaren gehiengoak proposatuta eta kontseiluari gai espezifikoari buruzko aholkuak emateko, aldi baterako, hitzarekin baina botorik gabe.

Era berean, udal baliabideetako arduradun teknikoek parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe (adibidez: jolastoki, gazteleku, ikastetxeak...).

– Kontseiluek kirol arloko teknikari bat izango dute idazkari, hitzarekin baina botorik gabe.

Funtzionamendua

5. artikulua. Aldizkakotasuna

Kontseilua sei hilean behin bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuran. Hala ere, komenigarritasun-edo presa-arrazoia direla eta, ezohiko bilkurak egin ahal izango dira, eta lehendakariak deituko ditu, bere ekimenez edo kontseiluko kideen heren batek gutxienez eskatuta.

6. artikulua. Bertaratze-quoruma

Bilkurak baliozkoak izateko, beharrezkoa da lehendakaria eta idazkaria eta, gutxienez, elkarten ordezkari diren kideen erdiak bertaratzea. Quorum hori bilkuran zehar mantendu beharko da.

Quorum hori lortzen ez bada, bigarren deialdian ordu erdi geroago eratuko da, eta nahikoa izango da elkarten ordezkari diren kideen laurdena, presidentea eta idazkaria bertaratzea.

7. artikulua Deialdiak

Kontseiluko lehendakaritzak bilkuretarako deialdia egin aurretik, idazkaritzak jakinarazpena bidaliko du, behin-behineko gai-zerrendarekin. Bertan, 10 egun naturaleko epea ezarriko da, kontseiluko kideek gai-zerrendarako proposamenak egin ahal izan ditzaten, bai eta gai-zerrendari buruzko dokumentazioa eta ekarpenak aurkeztu ere.

Ondoren, lehendakaritzak bilkuretarako deialdia egingo du. Deialdi horretan, aztergaien zerrenda bidaliko da, bai eta gai horiei buruz kontseiluko kideek egindako ekarpenak eta beharrezko dokumentazioa ere. Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia zortzi egun lehenago egingo da. Ezohiko eta presako deialdiak egiteko, alde zuzeneko mugarik gabe egingo da deialdia.

Bilkuren deialdiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira, eta udalaren webgunean argitaratu beharko dira.

Kontseiluaren bilera-datak argitaratuko dira, herritarrek eskaerak eta proposamenak aurkezteko aukera izan dezaten.

8. artikulua. Eztabaidak

Lehendakariak zuzenduko ditu bilkurak, eztabaidak antolatuko ditu eta behar diren neurriak hartuko ditu bileren ordena egokia bermatzeko.

9. artikulua. Aktak

Kontseiluko idazkariak bileren akta egin behar du, eta kontseiluak hurrengo bilkuran onartuko du.

Bilera guztien akta bidaliko zaie kontseiluko kideei. Aktak publikoak izango dira, eta hala eskatzen duten interesdunen eskura egongo dira, bilkura bakoitza egin eta hamabost egun igaro baino lehen.

Aktak edozein herritarren eskura egongo dira udalaren webgunean.

10. artikulua. Bozketa

Lan-sistema ohikoena adostasuna bilatzea da; adostasunik ez badago, botoa eman behar da, eta erabakiak eta ebazpenak boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, kontseiluko buruak kalitateko botoa izango du.

11. artikulua. Lantalde iraunkorra eta lantaldeak

Kontseiluak lantalde iraunkor bat eratuko du, kontseiluak proposatuta udalak onartutako ekimenen eta/edo programen jarraipena egiteko, bai eta kirol kontseiluaren sei hileko bilkuren artean sortzen diren lantaldeen eta ekimenen prozesuen jarraipena egiteko ere. Talde hori kontseiluko lehendakariak eta kontseiluan dauden elkarte-mugimenduko hiru ordezkari osatuko dute, eta kirol teknikiari idazkari gisa jardungo du. Kontseiluko lehendakariak hala irizten dionean elkartuko da, hiru hilean behin gutxienez.

Kontseiluaren eremuarekin zerikusia duten gai zehatz eta zehatzak aztertzeko, berariazko lan-batzordeak eratu ahal izango dira, kontseiluko lehendakariaren ekimenez eta/edo kontseilua osatzen duten kideen gehiengoak eskatuta. Lantaldeetan parte hartu ahal izango dute kontseiluko kide diren elkarten ordezkariak, bai eta kontseiluko kide gehienek proposatutako aztergai diren gaien espezialistek ere.

Lantaldeen bilera-erregimena malgua izango da, gaiaren premiari egokituia. Lantaldeen deialdia eta koordinazioa lehendakariari dagozkio, eta hark idazkariari eskuordetu diezaiolke, egoki baderitza. Lantaldeetan erabakiak hartzeko, bertaratutako pertsonen gehiengo soilak beharko da, eta kontuan hartu beharko da ondorioak edo erabakiak kontseiluari helarazi beharko zaizkiola beti, kontseiluak lantaldeetan hartutako ondorioak eta erabakiak behin betiko onartu dituzten.

12. artikulua. Kontseiluaren irizpenak

Kontseiluaren irizpenek, kontsultarako eta herritarren partaidetzarako izaera dutenez, garrantzi berezia izango dute, eta jarraibideak izango dira, udal-gobernuko organoentzako gomendioen maila izango dutenak. Horiek erantzun arrazoitua eman beharko diete kontseiluak egindako gomendio guztiei, baldin eta baztertu edo aldatzen badira. Kontseiluaren irizpen guztiak eta udal-gobernuko organoek horri buruz ematen dituzten erantzun guztiak behar bezala zabaldu beharko dira, herritarrek egindako lanaren berri izan dezaten.

Xedapen gehigarria

Osoko bilkurari dagokio erregelamendu hau osorik edo zati batean aldatzea, bai eta ezabatzea ere.

Azken xedapena

Kirol kontseiluaren barne-funtzionamenduko erregelamendu hau ALHAOn behin betiko argitaratzen denetik aurrera jarriko da indarrean.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. Artikuluan xedatzen duenarekin.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea izango da erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Horrez gainera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.